

OINARRIAK

NEIKER-NEKAZARITZA IKERKETA ETA GARAPENERAKO EUSKAL ERAKUNDEA, SA-K MAHATS BARIETATE BERRI BAT LORTZEKO JABETZA INDUSTRIALA GARATZEKO ETA ESKURATZEKO

1. OINARRIEN XEDEA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Oinarri hauen xedea da NEIKER-Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, SAK (aurrerantzean, halaber, “NEIKER”) txakolina ekoizteko mahats/mahatsondo barietate berri bat eta gehienez bost barietate berriren jabetza industrial garatu eta eskuratzeko prozedura eta kontratu baldintzak arautzea; barietate horiek erresistenteak izango dira Mildiuarekiko (*Plasmopara viticola*) eta Oidioarekiko (*Uncinula necator*), eta Hondarribi Zuri barietatetik abiatuta lortuko dira.

Lortu nahi den emaitzaren deskribapena eransten da, **I. Eranskin** gisa, baita helburu horretarako garatu beharreko prozesuena (hibridazioa eta hautespena) eta epeena ere.

Oinarri hauek eta prozeduraren ondoriozko kontratua, oso-osorik, zuzenbide pribatuaren arabera arautzen dira. Jabetza industrialari lotutako kontratu bat denez, ondarearen eremuko negozioaren izaera du, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikaziotik kanpo dago, lege horren 9. artikulua arabera, jabetza gorpuzgabeak baititu helburu.

Hala ere, aipatutako legearen 4. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, prozeduran sar daitezkeen parte hartzaileen artean konkurrentzia, gardentasun, publizitate eta tratu berdintasun printzipioak aplikatu nahi dira.

Horretarako, Oinarriak NEIKERen kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

2. PREZIOA

Esleipendunak jasoko duen kontratuaren prezioa hau izango da:

- **Diruzko kontraprestazioa:**

- ✓ Baliozkotzat jotzen den lehen barietateagatik: 220.500 € gehienez (BEZik gabe).
- ✓ Kontratu honen esparruan egindako gurutzaketatik abiatuta hainbat barietate berri hautatzen badira, NEIKERek horien gaineko eskubideen titulartasuna eskuratu nahi duen ala ez adieraziko du, eta, eskuratzea erabaki gero, gehienez ere 40.500 € ordainduko ditu barietate gehigarri bakoitzeko, gehienez 5 barietateraino.

Aipatutako diruzko kontraprestazioak murriztu egin daitezke eskaintzan.

Esleipena lortzen duen eskaintzan aurreikusitako diruzko kontraprestazioa honela ordainduko da:

- Urtean behin ordainduko da, kontratistak dagokion faktura aurkeztu eta gero. Azken urteari dagokion faktura landarearen entrega fisikoa jaso izanaren aktarekin eta barietatea erregistratzeko behar den dokumentazioaren batera egingo da. Fakturak urteko epemugan jaulkiko dira, epemuga horren hurrengo hilabetearen barruan.
- Kontratistari urtero ordaindu beharreko zenbatekoa honela kalkulatu da: kontratistak eskaintako zenbateko osoa zati kontratuaren iraupeneko urteak. Nolanahi ere, azken fakturak ordaintzea falta den prezioaren zati osoa hartuko du.
- Kontratu honen esparruan garatutako gurutzaketen bidez hautatutako barietate gehigarri berrien prezioa kontratistak landarearen entrega fisikoa jaso izanaren aktarekin eta barietatea erregistratzeko behar den dokumentazioaren batera aurkeztutako fakturaren arabera ordainduko da.
- **Diruzkoa ez den kontraprestazioa:**
- ✓ Barietate berriak ustiatzeko eskubide ez-esklusiboa, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan ugaltzeko eta merkaturatzeko eskubidea, 30 urteko epean, babesa eman den urte naturaletik aurrera.

Eskubide hori baliatzeko zehaztapen eta baldintzak hauek izango dira: enpresa esleipendunak barietate berri horiek EAEn merkaturatzeko gehieneko prezioa erresistenteak ez diren tokiko barietate berrien landare txertatuen batez besteko prezioaren bikoitza izango da (batez besteko prezioztat joko da landarearen bi hornitzaile nagusien prezioaren batez besteko aritmetikoaren emaitza, dagokion urtean).

- ✓ NEIKERek barietate berriak ugaltzeko ustiapen ez-esklusiborako eskubideak eman ahal izango dizkie Txakolinaren Jatorri Deituretako ohiko hornitzaileei, eta horiek landare bakoitzeko prezioaren %20ko royaltya ordaindu beharko diote kontratistari.

3. EPEAK

Kontratuaren indarraldiaren gehieneko epea lortutako barietatearen babesak irauten duen bitartekoa izango da, hau da, egungo legeriaren arabera, babesak eman den urtearen ondoren hogeita hamargarren urte naturala amaitu arte.

Lortutako mahats mota (motak) entregatzeko gehieneko epea 10 urtekoa izango da, kontratua formalizatzen denetik aurrera. Epe hori murriztu egin daiteke eskaintzetan. Kontratu honen xedeko lanak lehen adierazitako epea baino lehen amaitzen badira, une horretan emango zaizkio NEIKERi, eta NEIKERek kontratuaren prezioa ordainduko du, bigarren klausulan ezarritakoaren arabera.

4. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Oinarri hauetan araututako prozeduran parte hartu ahal izateko, erakunde interesdunek baldintza hauek guztiak bete beharko dituzte, oro har, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

- a) Jarduteko gaitasun osoa izatea eta bere helburu soziala eta jarduera landare barietateak lortzeari lotuta egotea.
- b) Mildiuarekiko eta oidioarekiko erresistenteak edo oso toleranteak diren mahats barietateen banku bat edukitzea (gutxienez 6 gene erresistentekin).
- c) Azken 3 urteetan, gutxienez mildiuarekiko (*Plasmopara viticola*) eta oidioarekiko (*Uncinula necator*) erresistentzia duten 5 mahatsondo barietate hibrido lortzen esperientzia izatea.
- d) Mintegizain gisa, azken 3 urteetako urterik onenean 1.000.000 landare merkaturatu izana gutxienez.
- e) Hautespen klonalerako finka esperimentalak edukitzea mildiu eta oidio gaixotasunak infektatzeko presio handia duten guneko agroklimatikoetan.

5. PARTE HARTZEA ETA KOMUNIKAZIOAK

5.1. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA, LEKUA ETA EPEA

Proposamenak **eskura edo posta arruntez** aurkeztuko dira (azken kasu horretan, Correos bulegoan bidalketa egin izanaren data justifikatu beharko da, eta erakunde kontratatzaileari jakinarazi beharko zaio eskaintza aurkeztu dela, mezu elektronikoz bat bidaliz helbide honetara: admin@neiker.eus; posta elektronikoz bidalitako jakinarazpenak soilik balioko du baldin eta egiaztatzen badira eskaintza bidali eta jaso dela, datak eta jakinarazpenen edukia, eta igorlea eta hartzailea modu fidagarrian identifikatzen badira. Kasu horretan, kopia inprimatua lortu eta erregistratuko da, eta espedienteari gehituko zaio. Bi baldintza horiek betetzen ez badira, dokumentazioa, iragarkian adierazitako epea amaitu ondoren jasotzen bada, ez da onartuko. Dena den, zehaztutako datatik 10 egun natural igarota proposamena jaso ez bada, proposamen hori ez da inola ere onartuko), gutun azal itxi bakar batean, helbide eta ordutegi hauetan:

- Helbidea: Berreaga kalea, 1, 48150 Derio (Bizkaia) Sonia Masipen izenean.
- Ordutegia: astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:00etara.

Proposamenak gehienez Oinarriak NEIKERen webgunean argitaratu eta 15 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, hau da, 2023ko urtarrilaren 27a.

Proposamena aurkezteak Oinarri hauetako Klausula guztiak erabat eta baldintzarik gabe onartzea dakar.

5.2. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Parte hartzaileek gutun azal bakar bat aurkeztu beharko dute, jarraian adierazten den dokumentazioarekin:

- i. Gutun azalean sartutako dokumentu guztien zerrenda jasotzen duen dokumentua.
- ii. Oinarri hauetan araututako prozeduran parte hartzeko eskabidearen dokumentua, **II. Eranskin** gisa eranstean den ereduaren arabera.
- iii. Xedea eta jarduera justifikatzen dituen eskritura edo eraketa agiria, estatutuak edo eraketa egintza, edo, NEIKERen iritziz, horiek behar bezala justifikatzen dituzten beste agiri batzuk.

Europar Batasuneko enpresaburu ez-espainiarren jarduteko gaitasuna, Europar Batasuneko estatu kideetakoak badira, ezarrita dauden estatuko legediaren arabera dagokien Erregistroan inskribatuta egotearen bidez egiaztatuko da, edo, bestela,

zintzeko adierazpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztuz, aplikatzekoak diren Europako Erkidegoko xedapenei jarraituz.

Atzerriko gainerako enpresaburuek Espainiak enpresaren helbideari dagokion estatuan duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrek edo Kotsuletzeko Bulegoak igorritako txostena aurkeztuta egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna. Txosten horren bidez justifikatu egin beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak ere onartzen duela Espainiako enpresek parte hartzea SPKLren 3. artikuluan zerrendatutako sektore publikoko pareko erakundeekiko kontratazioan, eta era berdintsuan egiten dela.

- iv. Nortasun Agiri Nazionalaren edo agiri baliokidearen kopia, eta, hala badagokio, erakundearen izenean agertzen den edo dokumentazioa sinatzen duen pertsonaren ahalorde nahikoa, Merkataritza Erregistroan izena emanda. Inoren izenean agertu edo proposamenak inoren izenean sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, baita horretarako ahalorde askietsia badutela ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar da, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94. artikuluan xedatutakoaren arabera hala behar duenean, edo, hala badagokio, dena delako Erregistro Publikoan, pertsona juridikoaren arabera.
- v. 4. Oinarriko b) eta c) ataletan kaudimenari buruz xedatzen diren baldintzak behar bezala egiaztatzen dituzten agiriak.
- vi. Proposamen teknikoa, atal hauek behar bezala identifikatuta:
 - a) Garapen planaren deskribapen memoria eta kontratua gauzatzeko metodologia, polinizazio fasea alde batera utzita. Eskaintzan, I. Eranskinean eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten parentalen deskribapena jaso beharko da, eta proposatutako parentalek eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da. Halaber, mugarren egutegi zehatza erantsi beharko da. Lizitatzailleek kontratua gauzatzeko 10 urteko gehieneko epea murriztu ahal izango dute.
 - b) Kontratua gauzatzeko esleituko diren giza baliabideak, horien CV, titulazio eta esperientziarekin. Halaber, kontratuaren xedea garatzeko, horien antolamendua deskribatuko da.
 - c) Kontratua gauzatzeko esleituko diren baliabide materialak, bereziki aipatuz dauzkaten bariedade bankuak, kontratua gauzatzeko erabiliko direnak.

Prestazio kritikoak direnez, hibridazioari buruzko zerbitzuak ezin izango dira azpikontratatu.

Proposamen teknikoak euskaraz, gaztelaniaz eta/edo ingelesez aurkeztu beharko da.

- vii. Proposamen ekonomikoa: prozesuan parte hartzen dutenek jaso beharreko diruzko kontraprestazioaren zenbatekoa eskaini beharko dute, **III. Eranskin** gisa eranstean den ereduaren arabera, 2. Oinarrian adierazitako gehieneko mugarekin.

NEIKERek eskubidea izango du egoki ikusten dituen egiaztatze lanak egiteko eta beharrezkotzat jotzen duen nahi adina dokumentu osagarri eskatzeko, xedea lizitatzailerak aurkeztutako dokumentazioaren eta informazioaren benetakotasuna egiaztatzea izanik.

5.3. KOMUNIKAZIOAK

Oinarri hauetan araututako prozeduraren ondorioz egiten diren komunikazio guztiak parte hartzaileek **II. Eranskin** gisa eranstean den ereduaren araberrako eskabidean adierazitako helbide elektronikoaren bidez egingo dira, NEIKERen helbide elektronikoa hau izanik: admin@neiker.eus.

6. PROPOSAMENIK ONENA HAUTATZEKO PROZEDURAREN GARAPENA

6.1. PROPOSAMENAK ONARTZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, horiek aztertuko dira, aurkeztu diren erakundeek Oinarrien 4. Klausulan parte hartzeko adierazitako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsik detektatzen bada, NEIKERek hiru egun naturaleko epea emango dio lizitatzailerari, zuzendu dezan.

6.2. NEGOZIAZIO FASEA

Aurreko 6.1 klausulan adierazitakoaren arabera onartu diren erakundeekin negoziazio fase bat irekiko da, Oinarri hauetako 5.2 Klausularen vi. atalean aipatzen den proposamen teknikoan jasotako edozein alderdiri buruzkoa izan daitekeena, baita klausula horren vii. ataleko proposamen ekonomikoaari buruzkoa ere.

Negoiazioa amaitu ondoren, parte hartzaileek negoziazioaren ondorioz jarrera aldatu badute, behin betiko proposamena aurkeztu beharko dute, negoziazioa amaitu eta hamar (10) egun balioduneko epean.

6.3. PROPOSAMENIK ONENA BALORATZEA ETA IDENTIFIKATZEA

Negoiazio fasea amaitu ondoren, behin betiko proposamenak NEIKERek izendatutako batzorde batek baloratuko ditu, irizpide hauen arabera:

- Kontratua gauzatzeko garapen plana eta metodologia deskribatzen duen memoria, mugarren egutegi zehatzarekin: **30 puntu, gehienez.**

Proposatutako planaren xehetasuna, egokitasuna eta seriotasuna baloratuko dira, batez ere azken helburua lortzeko metodologia eta epeak.

- Kontratua gauzatzeko esleituko diren giza baliabideak, horien CV, titulazio eta esperientziarekin. Halaber, kontratuaren xedea garatzeko, horien antolamendua deskribatuko da: **30 puntu, gehienez.**

Egin beharreko jardueri atxikitako langileen tituluen kopurua eta egokitasuna eta kualifikazioa, esperientzia eta antolamendua baloratuko dira.

Kontratua formalizatu aurretik, langile horien benetako prestasuna eta kualifikazioa eta esperientzia egiaztatu beharko dira.

- Kontratua gauzatzeari atxikiko zaizkion baliabide materialak: **30 puntu, gehienez.**

Eskaintako kopurua eta bitartekoak baloratuko dira, bereziki dauzkaten eta gauzatze horri atxikitzen zaizkion barietate bankuen ezaugarriak eta azalera.

- Eskaintza ekonomikoa: **10 puntu, gehienez.** Formula honen arabera baloratuko da:

- ✓ Tokiko banaketarako baliozkotzat jotzen den lehen barietaterako eskaintako prezioaren balorazioa (**8 puntu, gehienez**). Puntuaziorik handiena eskaintzarik baxuenari emango zaio, eta gainerakoak formula honen arabera baloratuko dira: $A \text{ eskaintzaren puntuak} = (\text{Eskaintzarik baxuena} / A \text{ Enpresaren eskaintza } A) * \text{emandako puntuak}$.

- ✓ Garatutako barietate berri bakoitzeko eskaintako prezioaren balorazioa (**2 puntu, gehienez**). Puntuaziorik handiena eskaintzarik baxuenari emango

zaio, eta gainerakoak formula honen arabera baloratuko dira: A eskaintzaren puntuak = (Eskaintzarik baxuena/A Enpresaren eskaintza)* emandako puntuak.

7. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Oinarri hauetan ezarritakoaren ondoriozko kontratua formalizatuz perfektionatuko da.

Kontratua dokumentu pribatu batean formalizatuko da, Oinarri hauetan eta eskuratzailleak aurkeztutako proposamenean ezarritako zehaztapen eta baldintzetara zehatz-mehatz egokituta.

8. ZEHAPENAK ETA KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Eskuratzailleak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Oinarri hauetan edo bere proposamenean ezarritako edozein betebeharrak betetzen ez badu, NEIKERek kontratua suntsiaraztearen edo kontratua gauzatzen jarraitzearen artean aukeratu ahal izango du, eta, bi kasuetan, dagozkion kalte-galerengatik zigorrak sortuko dira.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, edozein unetan agerian geratzen bada esleipendunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik bideraezina dela, kontratua suntsiarazi egingo da, eta ordura arte entregatutako zenbatekoak behin betiko ordaindutzat joko dira, eta kontratua likidatuko da, NEIKERen ustez azken txosten behar bezain xehatua entregatuz, eta inolako zenbateko gehigarririk eta kalte ordainik eman gabe.

9. JURISDIKZIO ESKUDUNA ETA ZERGA ARAUBIDEA

Oinarri hauen edukiarekin edo horietan ezarritako prozeduraren ondoriozko kontratuarekin lotutako auzirik sortuz gero, alderdiak Bilboko Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzio zibilaren mende jarriko dira.

I. ERANSKINA

Lortu nahi den emaitzaren deskribapena, baita helburu horretarako garatu beharreko prozesuena (hibridazioa eta hautespena) eta epeena ere.

Helburua da 1-5 mahats barietate lortzea, duten kalitateagatik eta ezaugarri enologikoengatik Hondarrabi Zuri barietatearen ahalik eta antzik handiena dutenak, eta mildiu eta oidio gaixotasunekiko erresistentzia duten geneak dituztenak.

Hondarrabi Zuri hibridatzeko erabiliko diren parentalek ezaugarri tekniko hauek izan beharko dituzte gutxienez:

- Gutxienez mildiuarekiko erresistentzia duten 3 gene eta oidioarekiko erresistentzia duten 3 gene egotea, ahal dela, batzuk egoera homozigotoan.
- Bigarren mailako gaixotasunekiko tolerantzia maila ona izatea (usteldura beltza, fomopsisa, botritis, etab.).
- Ardoaren analisi kimikoak eta profil organoleptikoak baieztatutako ardoaren kalitate ona izatea.

Enpresa esleipendunak urtero txosten bat bidaliko dio NEIKERi, egindako lan guztiak behar bezala zehaztuta, NEIKERen iritziz, zeinak informazio gehigarria ere eskatu ahal izango baitu.

NEIKEReko ordezkariak eta/edo teknikariak sarbidea izango dute hautatutako genotipoetarako, enpresa esleipendunaren ikerketa zentroaren lursailetan zein upategian.

Ez dira mahatsondoen aldaxkak/landareak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo salduko, NEIKERek berriazko baimena eman ezean. NEIKERek EAEtik kanpo saltzeko interesa badu, kontratistak ugaltzeko, merkaturatzeko eta saltzeko eskubide eskusiboa izango du.

NEIKER arduratuko da barietate berria egokitzen jotzen dituen Landare Barietate Komertzial eta Babestuen Erregistroetan inskribatzea izapidetzeaz, eta erregistro horiek izapidetzeko kostu guztiak bere gain hartuko ditu. Enpresa kontratistak NEIKERi behar den dokumentazio teknikoa eman beharko dio, NEIKERek erregistratu ahal izan dezan.

II. ERANSKINA

**NEIKER-NEKAZARITZA IKERKETA ETA GARAPENERAKO EUSKAL
ERAKUNDEA, SA-K MAHATS BARIETATE BERRI BAT LORTZEKO
JABETZA INDUSTRIALA GARATZEKO ETA ESKURATZEKO
PROZEDURAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA**

_____ erakundeak, IFZ: _____,
jakinarazpenetarako eta errekerimenduetarako helbidea: _____,
_____ kalea, _____ zenbakia,
harremanetarako helbide elektronikoa: _____ eta harremanetarako
telefonoa, jakinarazpenetarako: _____, eta bere izenean eta ordezkartzan
_____ jaunak/andreak, egintza honetan behartzeko behar
adinako ahalmenekin

NEIKER, SAko kontratazio organoari eskatzen dio NEIKER, SAK mahats barietate berri bat lortzeko jabetza industrialak garatzeko eta eskuratzeko prozeduran parte hartzea, eta, horretarako, oinarri hauetan adierazitako dokumentazio guztia eranstu du.

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ ren _____ (e)an

Izpta.:

III. ERANSKINA

Proposamen ekonomikoa

[...] jaunak/andreak, [...] helbidea eta [...] NANa duenak, bere izenean, edo [...] helbidea eta [...] NANa edo IFK duen [...] ordezkatzuz, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, [...] prozedura bidez [...] kontratatzeke lizitazioa ezagututa, agiri honen bidez

ADIERAZTEN DU

1. NEIKER-NEKAZARITZA IKERKETA ETA GARAPENERAKO EUSKAL ERAKUNDEA, SA-K MAHATS BARIETATE BERRI BAT LORTZEKO JABETZA INDUSTRIALA GARATZEKO ETA ESKURATZEKO kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen du, baldintza hauen arabera:

- ✓ Tokiko banaketarako balio duen lehen barietateagatik:
_____ € (BEZik gabe)
- ✓ Kontratu honen esparruan egindako gurutzaketetatik barietate berriak lortzen badira, eta NEIKERek horien jabetza lortu nahi badu:
_____ € barietate bakoitzeko. (BEZik gabe)

2. Kontratua arautzen duen dokumentazioa ezagutzen dula, eta berariaz eta osoki bere gain hartzen eta onesten du.

[...](e)n, [...](e)ko [...]ren [...]](e)an.

[Sinadura]